

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

«Gipuzkoa Digitala: Zibersegurtasuna» dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2026ko martxoaren 17ko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoak komunitate arduratsu, berdintasunezko eta jasangarri baterantz bideratutako etorkizuneko ikuspegi bat ezartzen du, zeinaren ongizate integrala industria-ekonomia lehiakor eta berritzaile batean oinarritzen den. Ikuspegi hori lortzeko, lurraldeak funtsezko erronkei heldu behar die, eratorriak azelerazio teknologikotik, digitalizazioaren masifikaziotik, Interneterako etengabeko sarbideetik eta belaunaldien arteko gizarte- eta lan-interakzioarako modu berrien agerpenetik.

Adierazle berriek erakusten dute zibermehatxuen intzidenteez gora egin dutela, Europako eta nazioarteko joeraren ildotik, eta laugarren urtez jarraian manufaktura-industria dela sektorerik kaltetuena, sistema automatizatuekiko mendekotasun handia eta jarraitutasun operatiboaren kritikotasuna direla eta. Gora-behera horiei lotutako kostuak nabarmen hazi dira –jardueraren, sistemak berrezartzea, datuak galtzea eta arauak ez betetzeak eragindako zehapenak barne–, eta horrek eragin zuzena du industria-lehiakortasunean eta hornikuntza-kate globaletan duen posizioan.

Interesa gero eta handiagoa den arren, industria-enpresa txiki eta ertain askok zibersegurtasun eta ziberresilientzia praktiken hasierako faseetan daude. Aldi berean, 4.0 Industriako eredu-erakunde trantsizioak eta sistemen gero eta interkonexio handiagoak agertoki bat eratu dute non zibersegurtasuna egiturazko elementu bihurtzen den, batez ere hornikuntza-kate globaletan jarduten duten Gipuzkoako ETE industrialentzat, segurtasun digitalerako maila gero eta handiagoak eskatzen baitituzte jarraitutasun operatiboa, aktiboaren babesa eta lehiakortasuna bermatzeko.

Behar horiekin lerrotuta, 2018tik ZIUR Fundazioak lurraldeko zibersegurtasun industrialeko gaitasunak indartzeko sortutako foru fundazio publiko gisa garatzen du bere jardura. Haren sorrerak bilakaera teknologikoari eta horri lotutako arrisku berriei aldeaz aurretik erantzun zien.

Gipuzkoa Digitala ekosisteman zibersegurtasunaren dimentsioa txertatzeak digitalizazioa, segurtasuna eta lehiakortasuna uztartzen dituen ikuspegi integrala ematen dio programari. Horrela, Gipuzkoa kokatzen da arriskuak aurreikusteko, aktibo estrategikoak babesteko eta zibersegurtasuna bere garapen ekonomiko eta sozialaren faktore bereizgarri bihurtzeko gai den lurralde industrial aurreratu gisa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2026rako eguneratzen du zibersegurtasuneko programa, eta bi dirulaguntza ildotan egituratzen du, bai enpresen berehalako beharrei erantzuteko, baita araudi-eta teknologia-eskakizun berriei erantzuteko. Lehen lerroak enpresetan zibersegurtasuneko gaitasun aurreratuak indartzen

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

Bases reguladoras y convocatoria 2026 del programa de subvenciones «Gipuzkoa Digitala: Ciberseguridad».

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 17 de marzo de 2026:

El Plan Estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa 2024-2027 establece una visión de futuro orientada hacia una comunidad responsable, igualitaria y sostenible, cuyo bienestar integral se apoya en una economía industrial competitiva e innovadora. Para avanzar hacia esta visión, el territorio debe abordar retos clave derivados de la aceleración tecnológica, la masificación de la digitalización, el acceso permanente a Internet y la aparición de nuevas formas de interacción social y laboral entre generaciones.

Los indicadores recientes muestran un incremento de los incidentes de ciberamenazas en línea con la tendencia europea e internacional, situando por cuarto año consecutivo a la industria manufacturera como el sector más afectado debido a su elevada dependencia de sistemas automatizados y a la criticidad de la continuidad operativa. Los costes asociados a estos incidentes presentan un crecimiento significativo –incluyendo interrupciones de actividad, reposición de sistemas, pérdida de datos y sanciones por incumplimientos normativos–, lo que afecta directamente a la competitividad industrial y a su posición en cadenas globales de suministro.

A pesar del interés creciente, muchas pymes industriales continúan en fases iniciales de adopción de prácticas de ciberseguridad y ciberresiliencia. Paralelamente, la transición hacia modelos de Industria 4.0 y la creciente interconexión de sistemas han configurado un escenario en el que la ciberseguridad se convierte en un elemento estructural, especialmente para las pymes industriales guipuzcoanas que operan en cadenas de suministro globales que exigen niveles cada vez mayores de seguridad digital para garantizar la continuidad operativa, la protección de activos y la competitividad.

Alineada con estas necesidades, desde 2018 ZIUR Fundazioa desarrolla su actividad como fundación pública foral concebida para reforzar las capacidades de ciberseguridad industrial del territorio. Su creación respondió de manera anticipada a la evolución tecnológica y a los nuevos riesgos asociados.

La integración de la dimensión de ciberseguridad dentro del ecosistema Gipuzkoa Digitala dota al programa de un enfoque integral que combina digitalización, seguridad y competitividad. De este modo, Gipuzkoa se posiciona como un territorio industrial avanzado capaz de anticipar riesgos, proteger sus activos estratégicos y convertir la ciberseguridad en un factor diferencial de su desarrollo económico y social.

La Diputación Foral de Gipuzkoa actualiza para 2026 su programa de ciberseguridad, estructurándolo en dos líneas de ayudas que responden tanto a las necesidades inmediatas de las empresas como a las nuevas exigencias normativas y tecnológicas. La primera línea refuerza las capacidades avanzadas de ci-

ditu, detekzio-zerbitzuak ezartzea eta gorabeheren aurrean erantzuteko planak egitea bultzatuz. Bigarren lineak, industria-eremuan zentratuta, plantako OT azpiegitura hobetu, berritu eta modernizatzen laguntzen du, eta enpresei laguntzen die baldintza teknologiko berrietarako konektatuta eta prestatuta dauden plantak sendotzen.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eztabai-datu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

**Lehenengo.** Onestea «Gipuzkoa Digitala: Zibersegurtasuna» programaren oinarri arautzaile orokorrak, erabaki honen I. eranskinen jasotakoak.

**Bigarren.** Onestea «Gipuzkoa Digitala: Zibersegurtasuna» programaren ondorengo dirulaguntza lerroak emateko oinarri arautzaile espezifikoak, erabaki honen II eta III eranskinetan jasotakoak:

– Zibersegurtasuneko gaitasun aurreratuak enpresetan, operazioetan eta erresilientzian.

– Plantako OT azpiegitura hobetzea, berritzea eta modernizazioa.

**Hirugarren.** Onestea dirulaguntzen 2026ko deialdia, erabaki honen IV. eranskinen jasota dagoena.

**Laugarren.** 2026ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko 400.000 euroko gastua baimentzea, aurrekontuko partida hauen arabera:

– Zibersegurtasuneko gaitasun aurreratuak enpresetan, operazioetan eta erresilientzian (265.000,00 euro):

1 0520.210.470.00.07 2026: 200.000,00 €.

5 0520.210.470.00.07 2027: 65.000,00 €.

– Plantako OT azpiegitura hobetzea, berritzea eta modernizazioa (135.000,00 euro):

1 0520.210.470.00.06 2026: 100.000,00 €.

5 0520.210.470.00.06 2027: 35.000,00 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, kreditua erabilgarri dagoela deklaratu behar da, dirulaguntzak emateko ebazpena eman aurretik.

**Bosgarren.** Erabaki honek onesten dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo usztezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko martxoaren 20a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (1907)

berseguridad en empresas impulsando la implantación de servicios de detección y la elaboración de planes de respuesta ante incidentes. La segunda línea, centrada en el ámbito industrial, apoya la mejora, renovación y modernización de la infraestructura OT en planta, acompañando a las empresas en el fortalecimiento de plantas conectadas y preparadas para los nuevos requisitos tecnológicos.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

**Primero.** Aprobar las bases reguladoras generales para la concesión de las siguientes líneas de ayuda del programa «Gipuzkoa Digitala: Ciberseguridad» que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo.

**Segundo.** Aprobar las bases reguladoras específicas para la concesión de las siguientes líneas de ayuda del programa «Gipuzkoa Digitala: Ciberseguridad» que se adjuntan como anexos II y III al presente acuerdo:

– Capacidades avanzadas de ciberseguridad en empresas, operaciones y resiliencia.

– Mejora, renovación y modernización de infraestructura OT en planta.

**Tercero.** Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2026 que se acompaña como anexo IV al presente acuerdo.

**Cuarto.** Autorizar un gasto por importe de 400.000 euros para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2026 con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

– Capacidades avanzadas de ciberseguridad en empresas, operaciones y resiliencia (265.000,00 euro):

1 0520.210.470.00.07 2026: 200.000,00 €.

5 0520.210.470.00.07 2027: 65.000,00 €.

– Gipuzkoa Digitala: Mejora, renovación y modernización de infraestructura OT en planta (135.000,00 euros):

1 0520.210.470.00.06 2026: 100.000,00 €.

5 0520.210.470.00.06 2027: 35.000,00 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

**Quinto.** Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 20 de marzo de 2026.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (1907)

I. ERANSKINA

*Gipuzkoa Digitala: Zibersegurtasuna dirulaguntza programaren oinarri arautzaile orokorrak.*

**1. oinarria. Dirulaguntzaren xedea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoak komunitate arduratsu, berdintasunezko eta iraunkor batean oinarritutako etorkizuneko ikuspegi bat ezartzen du, industria-ekonomia lehiakor eta berritzaile batean oinarritua. Ikuspegi horretarantz aurrera egiteko, lurraldeak gero eta erronka handiagoei egin behar die aurre, azelerazio teknologikoaren, digitalizazio masiboaren, Interneteko sarbide iraunkorren eta gizarte- eta lan-interakzio moduen eraldaketaren ondorioz. Esparru horretan, eta Gipuzkoa Digitala estrategiaren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak digitalizazioak produkzio-ehunari planteatzen dizkion erronkei aurrea hartzeko eta erantzuteko ekimenak bultzatzen ditu, zibersegurtasun industriala ezinbesteko ardatz estrategiko gisa kokatuz, ziurtatzeko, enpresen eraldaketa digitala modu seguruan, lehiakorrean eta iraunkorrean garatzen dela.

Helburu horrekin, 2018an ZIUR Fundazioa eratu zen, enpresa-ehunaren zibersegurtasun industrialeko gaitasunak indartzera bideratutako foru fundazio publiko gisa, segurtasun digitala lehiakortasun-faktore gisa txertatuz. Zibersegurtasuneko zentroak nazioarteko erreferente gisa sendotu nahi du esparru horretan, eragile espezializatuekin lankidetzan estuan lan eginez eta ezagutzaren espermentazioan, behaketan eta transferentzian oinarritutako ikuspegi praktikoa hartuz.

Programa hau Gipuzkoa Digitalaren barruko tresna operatiboa gisa sortu da, eta ZIURen strategiaren osagarria da. Laguntza multzo bat antolatzen du, alde batetik, industria-enpresen zibersegurtasuneko ezagutza-, detekzio- eta gobernanta-maila handitzeko, eta, bestetik, Gipuzkoako zibersegurtasuneko ekosistemaren garapena bultzatzeko. Ekosistema hori gaitasun aurreratuak dituzten eta estatuan eta nazioartean gero eta proiektio handiagoa duten enpresek osatzen dute. Horrela, Gipuzkoa lurralde industrial aurreratu gisa finkatu nahi da, gai dena arriskuak aurreikusteko eta zibersegurtasuna digitalizazioaren funtsezko elementu gisa integratzeko.

Eraldaketa digitala industrialaren ondoriozko erronka berriekin bat etorritik, programak ikuspegi indartua du mehatxuak goiz detektatzeko, etengabeko monitorizaziorako eta instalazio OT azpiegiturak berritzeko. Jarduera horien artean sartzen dira kontrol-sistemak modernizatzea, OT segmentazioa eta ziberresiliencia operazionala hobetzea. Horrela, programa bat dator Gipuzkoa Digitalaren helburuekin, eta produkzio-sareari laguntzeko tresna integrala da, zibersegurtasuna digitalizazioaren funtsezko osagai gisa integratzeko eta egungo eta etorkizuneko erronka teknologikoei erantzuteko.

**2. oinarria. Dirulaguntzen onuradun izateko entitate onuradunek bete beharreko baldintzak.**

**2.1.** Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun izan daitezke hurrengo apartatuan (2.2) aipatzen diren entitateak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

– Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko marxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

– Zigor administratiborik edo penalik ez izatea sexu diskriminazioa dela eta, 1/2023 Legegintzako Dekretuak, marxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak aurreikusitakoaren arabera.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztuko du.

ANEXO I

*Bases reguladoras generales del programa Gipuzkoa Digitala: Ciberseguridad.*

**Base 1.ª Objeto de la subvención.**

El Plan Estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa 2024–2027 establece una visión de futuro basada en una comunidad responsable, igualitaria y sostenible, sustentada en una economía industrial competitiva e innovadora. Para avanzar hacia esta visión, el territorio debe afrontar retos crecientes derivados de la aceleración tecnológica, la digitalización masiva, el acceso permanente a Internet y la transformación de las formas de interacción social y laboral. En este marco, y a través de la estrategia Gipuzkoa Digitala, la Diputación Foral de Gipuzkoa impulsa iniciativas orientadas a anticipar y dar respuesta a los desafíos que la digitalización plantea al tejido productivo, situando la ciberseguridad industrial como un eje estratégico imprescindible para asegurar que la transformación digital de las empresas se desarrolle de manera segura, competitiva y sostenible.

Con este propósito, en 2018 se constituyó ZIUR Fundazioa como fundación pública foral destinada a reforzar las capacidades de ciberseguridad industrial del tejido empresarial, incorporando la seguridad digital como un factor de competitividad. Su centro de ciberseguridad aspira a consolidarse como un referente internacional en este ámbito, trabajando en estrecha colaboración con agentes especializados y adoptando un enfoque práctico basado en la experimentación, la observación y la transferencia de conocimiento.

El presente programa, concebido como instrumento operativo dentro de Gipuzkoa Digitala y complementario a la estrategia de ZIUR, articula un conjunto de apoyos destinados, por un lado, a elevar el nivel de conocimiento, detección y gobernanza en ciberseguridad de las empresas industriales y, por otro, a impulsar el desarrollo del ecosistema guipuzcoano de ciberseguridad, integrado por empresas con capacidades avanzadas y creciente proyección estatal e internacional. Con ello, se persigue afianzar Gipuzkoa como un territorio industrial avanzado, capaz de anticipar riesgos e integrar la ciberseguridad como elemento esencial de su digitalización.

En consonancia con los nuevos retos derivados de la transformación digital industrial, el programa incorpora un enfoque reforzado en la detección temprana de amenazas, la monitorización continua y la renovación de infraestructuras OT en planta. Entre estas actuaciones se incluyen la modernización de sistemas de control, la segmentación OT y la mejora de la ciberresiliencia operacional. De este modo, el programa se alinea con los objetivos de Gipuzkoa Digitala y se configura como un instrumento integral de apoyo al tejido productivo en la integración de la ciberseguridad como componente esencial de su digitalización y en la respuesta a los retos tecnológicos actuales y futuros.

**Base 2.ª Requisitos que deben reunir las entidades beneficiarias.**

**2.1.** Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las entidades a las que se refiere el apartado siguiente (2.2), siempre que reúnan los siguientes requisitos:

– No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

– No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

La acreditación de estos requisitos se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable.

– Zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzako betebeharreran egunean egotea. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriari aurkeztu beharko dituzte.

2.2. Entitate onuradunak izango dira oinarri espezifikoen ezartzen diren tamaina eta izaera beharkizunak betetzen dituztenak.

2.3. Enpresak tamainaren arabera bereizi behar direnean, enpresaren tamaina zehazteko kontuan hartuko dira 651/2014 Erregelamenduaren (EB) I. eranskinean jasotako definizioak eta kalkuluak.

2.4. Oinarri espezifikoko bakoitzak zehaztuko du entitate onuradun mota, eta ea dirulaguntza horiek eskuratzeko enpresek bakarka edo taldean bultzatuko proiektuak aurkeztu ahal izango diren; proiektua taldean aurkezten bada, enpresa horietako bat beste guztien buru eta proiektuaren arduraduna izango da.

#### 3. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Dirulaguntzen lerro bakoitzeko oinarri espezifikoen zehaztuko dira dirulaguntza bakoitzaren xede diren jarduketak eta, lerro bakoitzari dagokionez, diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.2. Aintzat hartuko dira soilik dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zalantzarik gabe identifikatu daitezkeen gastuak.

Fakturan jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zerga ez da diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko.

3.3. Proiektuetan ez da onartuko sexuaren araberako beirezkeriarik eta saiatu beharko dira sexuaren araberako zereginak eta estereotipoak ezabatzen.

#### 4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

4.1. Oinarri espezifikoen zehaztuko dute entitate bakoitzak zenbat proiektu aurkez ditzakeen gehienez, edo zenbat onartu daitezkeen entitate bakoitzeko.

4.2. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoa erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), dirulaguntzen atarian sartuz eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez. Eskaera orria, eta hari erantsitako dokumentazioa aurkezterako orduan kontuan hartuko da, 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, foru administrazioaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena eta 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duena.

4.3. Entitate interesdunaren ordezkari gisa aurkeztutako eskabideek bat etorri beharko dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkariaren errola arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Aginduekin edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren borondatezko ordezkariaren errola korporatiboa arautzen duen azaroaren 4ko 881/2014 Foru Aginduekin.

Oinarri espezifikoko bakoitzak zehaztuko du ea enpresek bana-bana edo erakunde multzo batek bultzatutako proiektuak aurkeztu ahal izango diren dirulaguntza horietara. Kasu horretan, erakunde horietako bat izango da haien guztien buru, eta bera izango da proiektuaren arduraduna.

4.4. Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: [www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak](http://www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak).

– Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social. El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, se requerirá su aportación a la persona solicitante.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

2.2. Tendrán la consideración de entidades beneficiarias aquellas que reúnan los requisitos de tamaño y naturaleza que se establezcan en las bases específicas.

2.3. Cuando sea necesaria la distinción de empresas por tamaños, para la determinación del tamaño de empresa, se utilizarán las definiciones y método de cálculo de efectivos contenidos en el anexo I del Reglamento (UE) n.º 651/2014.

2.4. Cada una de las bases específicas determinará el tipo de entidades beneficiarias y si a estas subvenciones podrán presentarse proyectos impulsados por empresas de manera individual o por un conjunto de entidades, en cuyo caso una ejercerá de líder de todas ellas y será la responsable del proyecto.

#### Base 3.ª Gastos subvencionables.

3.1. En las bases específicas de cada línea de subvención, se detallarán las actuaciones objeto de subvención y gastos susceptibles de apoyo de cada una de las líneas.

3.2. Solo se considerarán los gastos que puedan identificarse inequívocamente con el proyecto objeto de la subvención.

No tendrá la consideración de gasto elegible el Impuesto sobre el Valor Añadido repercutido en factura.

3.3. Los proyectos no serán discriminatorios por razón de sexo y deberán procurar la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

#### Base 4.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.

4.1. Las bases específicas definirán el número máximo de proyectos que podrán presentar o ser aprobados por cada una de las entidades.

4.2. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, deberán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), accediendo al portal de subvenciones y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral y el Decreto Foral 40/2006, de 12 de septiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

4.3. Las solicitudes formuladas en representación de la persona interesada deberán de ajustarse bien a lo dispuesto en la Orden Foral 573/2014, de 28 de octubre, por la que se regula el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o bien a los términos expuestos en la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre, por la que se regula el censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cada una de las bases específicas determinará si a estas subvenciones podrán presentarse proyectos impulsados por empresas de manera individual o por un conjunto de entidades, en cuyo caso, una ejercerá de líder de todas ellas y será la responsable del proyecto.

4.4. La información de la convocatoria estará disponible en la página web [www.gipuzkoa.eus/subvenciones](http://www.gipuzkoa.eus/subvenciones).

4.5. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

4.6. Eskaera egin duten entitateak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz. Kasu hauetan, eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer organo edo dependenzian aurkeztu edo igorri ziren aipatutako dokumentuak. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen entitateari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

4.7. Aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko behar adina dokumentu eta informazio eska ditzake departamentuak.

4.8. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriak, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

4.9. Entitate eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak posta elektronikoen bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

*5. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.*

5.1. Oinarri espezifikoek zehaztuko dute, proiektu motaren arabera, dirulaguntza emateko prozedura.

5.2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

*6. oinarria. Balorazio irizpideak eta puntuazioak.*

Deialdira aurkezten diren eskaerak oinarri arautzaile espezifikotuan jarduera lerro bakoitzerako zehazten diren irizpideen arabera baloratuko dira.

*7. oinarria. Finantzaketa.*

Emango diren dirulaguntzak deialdiko urteari dagozkion Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian zehaztuko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatuko diren dirulaguntzak.

*8. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

8.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera zehaztuko da, betiere aurrekontu baliabideak eta oinarri hauetan ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta.

8.2. Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu banaketa edo ondorengo aldaketak erreferentziatzat hartuko dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko; zenbateko hori jardueraren kostu diruz lagungarriaren portzentaje gisa kalkulatu da, eta dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezingo du hasieran emandakoa gainditu.

8.3. Dirulaguntza lerro bakoitzeko dirulaguntzen portzentajea eta gehieneko zenbatekoak proiektu motaren, entitate eskatzailearen eta gastu motaren arabera zehaztuko dira.

4.5. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4.6. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. En estos casos, deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos dichos documentos. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la entidad solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

4.7. El departamento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

4.8. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

4.9. La entidad solicitante dará validez a todas las comunicaciones emitidas por el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto identificada en la solicitud de ayuda.

*Base 5.ª Procedimiento de concesión.*

5.1. Las bases específicas, en función del tipo de proyectos de que se trate, definirán el procedimiento de concesión.

5.2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Base 6.ª Criterios de valoración y puntuaciones.*

Las solicitudes que se presenten a la convocatoria se valorarán de acuerdo con los criterios que para cada una de las líneas de actuación se fijan en sus bases reguladoras específicas.

*Base 7.ª Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondientes al año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*Base 8.ª Cuantía de las subvenciones.*

8.1. El importe subvencionable y la subvención se fijarán con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración definidos.

8.2. El presupuesto desglosado presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste subvencionable final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el inicialmente concedido.

8.3. El porcentaje e importe máximo de las subvenciones a conceder se determinará por cada una de las líneas de subvención en función del tipo de proyecto, entidad solicitante y tipo de gasto.

9. oinarria. *Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.*

9.1. Prozedura izapidetuko duen organoa Berrikuntzako Zerbitzua izango da.

9.2. Oinarri espezifikoek, prozeduraren arabera, ebazpen prozeduraren instrukzioa egiteko modua definituko dute.

10. oinarria. *Eskaerak ebaztea.*

10.1. Laguntzak emateari edo, hala badagokio, ukatzeari buruzko ebazpena egitea erantzukizuna duen organoari dagokio, egitura organikoari eta funtzionalari buruzko foru dekretuan adierazitakoaren arabera.

10.2. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Hala eta guztiz ere, organo emaileak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

10.3. Elkarrekiko norgehiagokako prozeduren kasuan, emakidaren ebazpenak, dirulaguntza ematen zaien entitateen zerrenda jasotzeaz gain, entitate eskatzaileek lortutako puntuazioaren zerrenda jaso beharko du, behearazko hurrenkeran, ezarritako balorazio-irizpideen arabera, entitate horiei, pertsona onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak beteta ere, ez zitzaielako dirulaguntzarik eman gainerakoek baino puntuazio txikiagoa lortu zutelako eta aurrekontu-kreditua agortu zelako. Zerrenda horretan dauden entitateak itzarote zerrendan geratuko dira, emandako dirulaguntzetakoren bati uko egingo balitzaio.

10.4. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetezko izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jakinarazi ez bada, interesdunak legitimatuta daude dirulaguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

11. oinarria. *Entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

11.1. Entitate onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar honako hauetan ezartzen diren betekizunen pean egotea: oinarri hauek; martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; eta hura garatzeko Erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua. Bestalde, konpromiso hauek hartuko dituzte:

– Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batgina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako irizpide nagusiak betetzea diruz lagundutako jardueretan, bereziki alderdi hauei dagokienez: hizkera eta irudiak modu ez sexistan erabiltzea eta diruz lagundutako jardura ebaluatzean irizpideetan genero adierazleak sartzea.

– Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpen, material eta jardueretan.

– Departamentuak dirulaguntzaren xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publikitate ematea. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektronikoen edo ikus-entzunezkoen eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

Base 9.<sup>a</sup> *Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

9.1. El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Innovación.

9.2. Las bases específicas, en función del procedimiento de que se trate, definirán la forma de instrucción de procedimiento de resolución.

Base 10.<sup>a</sup> *Resolución de la concesión.*

10.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al órgano que tenga encomendada la responsabilidad, según lo señalado en el decreto foral vigente de estructura orgánica y funcional.

10.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

10.3. En el caso de procedimientos por concurrencia competitiva, la resolución de concesión, además de contener la relación de las entidades a las que se concede la subvención deberá contener una relación, por orden decreciente, de la puntuación obtenida por las entidades solicitantes, en función de los criterios de valoración establecidos, a las que, aun reuniendo las condiciones administrativas y técnicas para adquirir la condición de persona beneficiaria, no se les concedió subvención por obtener una puntuación inferior a la del resto y haberse agotado el crédito presupuestario. Estas entidades quedarán en lista de espera para el caso de que algunas de las subvenciones concedidas quedaran sin efecto por renuncia.

10.4. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 6 meses, contados a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa, legítima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

Base 11.<sup>a</sup> *Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

11.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones, así como el compromiso de:

– Cumplir en sus actuaciones subvencionables con los principios generales establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada.

– Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado.

– Dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación del departamento de los proyectos o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional, así como de leyendas relativas a la financiación pública y al objeto del programa de intervención pública en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, y cualquier otro soporte o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

11.2. Emandako dirulaguntzak ondasun inbertariagarriak erosteko erabiltzen badira, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, entitate onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

11.3. Baldin eta, dirulaguntza eman eta bost urteko epean, programaren entitate onuradunen batek bere produkzio zentroen parte esanguratsu edo garrantzitsu bat Euskal Autonomia Erki-degotik kanpo lekualdatzen badu, entitate onuradunak gertaera horren berri eman beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta dirulaguntza itzularazteko arrazoi izan daiteke hori, eta 16. oinarrian zehaztutakoari jarraituko zaio.

11.4. Programa taldearen behar eta ezaugarrietara ongi moldatzen dela ziurtatzeko, entitate onuradunak behartuta egon-goa dira programaren ebaluazioan lankide izatera.

11.5. Laguntza onartuz gero, laguntza jaso duten entitateek proiektuari buruzko informazioa eman beharko diote departamentuari, bai eta hura komunikazio helburuetarako erabiltzeko baimena ere, hori guztia, baliabide publikoen erabileran gardentasuna bultzatzeko eta, hala badagokio, zehazten diren hedapen ekimenetan laguntzeko.

11.6. Laguntza onartzearekin, onuradunak baimena ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari legez dagozkion edo programaren kofinantzazioagatik aplikatu dakizkiokeen datu baseetan sartzeko dirulaguntzari buruzko informazioa.

**12. oinarria. Bateragarritasuna eta bateragarritasun-eza beste dirulaguntzekin.**

Oinarri espezifikoek, proiektu motaren arabera, laguntzei aplikatu beharreko bateragarritasun araubidea definituko dute.

**13. oinarria. Dirulaguntzen ordainketa.**

13.1. Ordainketa dirulaguntza jaso duen jarduerak gauzatzeko justifikazioa aurkeztu eta gero egingo da.

Hala ere, diruz lagundutako proiektuei hasteko aukera emango duten funtsak eman behar direnez, eta kontuan hartuta egungo finantza-zailtasunak oztupo handia direla berehalako emaitzarik ez duten eta inbertsio handia dakarten epe ertain-luzerako proiektuak gauzatzeko, ordainketa aurreratua egin ahal izango dira bermerik gabe, eta gehienez ere emandako dirulaguntzaren % 80era arteko zenbatekoan, betiere aurrekontu-baliabiderik badago, proiektu bakoitzean alde aurretik justifikatuta proiektuaren hasiera eta aurrerakinaren beharra.

13.2. Gainerako zenbatekoa proiektua amaitzean ordainduko da, 14.3 oinarrian aurreikusitako zuriaketa aurkeztu ondoren.

Hala ere, zenbateko hori osorik ordaindu daiteke proiektua edo jarduketa amaitu aurretik, dirulaguntzari dagozkion jarduketak gauzatu ahal izateko finantzazio gisa (aurretik aurrerakinaren beharra egiaztatzen bada); horretarako, Foru Aldundiaren iritzi nahikoa izango den banku abala aurkeztu beharko da, aurreratutako dirulaguntzaren zenbatekoari eta aurrerakina ematen denetik proiektua bukatu bitarteko berandutze interesei dago-kiena.

13.3. Abala kitatzeko, lagundutako proiektua amaitu dela egiaztatu beharko da. Horretarako, lanen deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioa eta 14.3 oinarrian aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu behar dira.

11.2. En el caso de que las subvenciones concedidas se destinen a la adquisición de bienes inventariables, será de aplicación lo establecido en el artículo 30.4 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El periodo durante el cual la entidad beneficiaria deberá destinar tales bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención no podrá ser inferior a 5 años en caso de bienes inscribibles en un registro público, ni a 2 años para el resto de bienes.

11.3. En el caso del traslado, por parte de alguna de las entidades beneficiarias del programa, de parte significativa o relevante de sus centros productivos fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco en un plazo de cinco años desde la concesión de la subvención, la entidad beneficiaria deberá comunicar dicha circunstancia a la Diputación Foral de Gipuzkoa, lo cual podrá ser causa de reintegro de la subvención y se estará a lo establecido en la base 16.<sup>a</sup>

11.4. A fin de asegurar la mejor adaptación del programa a las necesidades y características del colectivo, las entidades beneficiarias tendrán la obligación de colaborar en la evaluación del mismo.

